

Atez ateko bilketari bultzada emango dio herrian Lasarte-Oria Bizirik-ek

Herritar gehienak erraustearen aurka eta zabor bilketa sistema aldatzearen alde daudela diote

Lasarte-Oria Bizirik taldeak dokumentu bat ezagutarazi du aste honetan zenbait eskaerarekin: erraustegiaren proiektua sei urtez gelditzeko moratoria, "zero zabor" ekimena, udalak gaikako bilketa bultzatu dezala eta materia organikoaren konpostajea behingoz martxan jarri dadila. Gainera herriko elkartei aldarrikapen horiekien bat egiteko eskatu die. Lasarteoriabizirik@yahoo.es da euren helbide elektronikoa.

Taldeko kideek gogoratu zuten duela bi urte udalak erabaki zuela gaiari buruzko inkesta egitea eta atez ateko bilketaren froga bat martxan jartzea, baina gero PSOEk bere kabuz erabaki hori bertan behera utzi duela. Apiri-

lean elkartu ziren Jesus Zaballous alkatearekin eta berriro biltzeko geratu baziren ere ez omen dute haren aldetik intereseik ikusten.

Inkestaren emaitzak oso onak izan zirela ere azpimarratu zuten, "%51 atez atekoa martxan jartzearen aldekoak ziren eta %87k sistemara errez egokituko zirela zioten. Gehienek oso nabarmen erraustegiaren aurkako iritzia zuten gainera". Taldeko kideen ustez interesgarriena zera izan zen, herritarrak erraustegiaren aurkako jarre-rarekin batera, zerbait egiteko prest agertu zirela.

Zabor-bilketa Udalaren eskumena denez, plataformaren ustez, hondakinak beste era batera bilduta argi geratu-

ko litzateke erraustegia ez dela beharrezko. Gainera herritarrek bat egingo lukete, "jendea ohituraz aldatzeko prest dagoela uste dugu, erraustegiari ez esatea baino gehiago egiteko prest".

Liburuxka bat argitaratu dute, Lasarte-Oria bizirik taldearen sorrera, historia eta gaur egungo ekimen eta eginahalak laburtzen dituena. Gainera, aurkezpena baliatu zuten Donostian igandean errausketaren aurkako plataforma ezberdinek deitu duten manifestazioan parte hartzea eskatzeko. Eguerdiko 12etan abiatuko da bulebarretik "Osasunaren alde, errausketarik ez" leloarekin. •

Ricardo Ortega eta Txanpi Baztarririkari elkarriketa / 4-5



Lasarte-Oria Bizirik plataformako kideak liburuxkaren aurkezpenean.

Amaiera musikala

Lasarte-Oriako Udala Musika eta Dantza eskolak ikasturte amaierako ekitaldiak egin dituzte aste honetan. Asteartean, Musika eskolako txikiek eman zioten hasiera emanaldiari kutxa-txinatarra, triangelu edo krotaloekin. Ostean, dantzako ikasleek bere trebezia erakutsi zuten. Jarraian, Musika eskolako instrumentu ezberdinek entzun ahal izan ziren, hala nola, trikitixa, gitarra, pianoa, bibolina, tronpeta... Atzo, berriz, Musika Eskola II. maila gainditu duten ikasleei diploma eman eta instrumentu talde, zein folk taldeak entzun ziren kultur etxeko aretoan. •



UDALA /3

Ehun egun egin ditu Jesus Zaballosek alkateztan

EUSKARA /3

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak Euskal astea ospatuko du

KIROLA /6

ISU Leihoak ez du Euskal Ligarako igoera lortu

SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Neure kabuz



Gaurkoa ez da kexaka ibiltzeko

Ez, gaurkoa ez. Hilabete hauetan argitaratutako zuta-beak irakurri eta ño! "Horixe tipo triste hori, argazkiko bizar-txuri ozpindu hori!", pentsatuko du batek, "Kexa eta negarra besterik ez du-eta!". Eta ez, ez da horrela. Ez dira kexak eta ozpindura nahastu behar, irri-algarak eta bizipoza nahastu behar ez diren modu berebean.

Gaurkoa poza azaltzekoa da. Poza eta esker ona. Esker ona, 8. Antzerki Astearen lehenengo egunean, desfilea bertan behera geratu ondoren, Kultur Etxea lepo bete zutenei eta, bereziki, sartu ezinean geratu zirenei. Edo, hurrengo ostiralean, desfilea ikusteko kaleak bete zituztenei. Edota egunero aretoa bete zutenei. Aretoa bete eta, ejem, ez da inportanteena baina badu inportantzia, irteeran jarritako itsulapikoei kasu egin zieten. Sortzekoa zen diru-zuloa berdintzen lortu duzue! Poza eta esker ona, beraz.

Ez da poza iturri bakarra, ordea. Duela pare bat asteburu, antzerkizaletasuna susperetzeko sortua den Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE) bere I. Batzarra burutu zuen Villabonan, gure herriko partaidetza nabarmena izanik. Eta gauza bera gertatuko da datorren 22an, Bilbon egingo den aurkezpen-jaian; autobusa alokatu eta kofradian joanda, taula gainean arituko dira guretako dozena batzuk. Ari gara beraz, korrontea kontra edo alde baina ari gara...

Tira, uda pasa ondoren kexaka bueltatuko naiz berriro; ez ozipinak jota, e! ez, ez, ez; kexaka bakarrik; arrazoi ugari dago eta. Itzaletik ibili.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Andrea

Zorionak printzesita zure I. urtebetetzean familia guztiaren partetik. Muxu potolo.



Mirari

Zorionak zure 5.urtebetetzean eta jarraitu beti bezain alai!



Lore

Zorionak lolo! ondo ondo pasa zure egunean, eta 25muxe potolo!



Alazne

Txokolatezko Sei muxu gure etxeko printzesa. Familiaren partetik.



Aimar

Zorionak aita-ama, osaba eta aitona-amonaren partetik. Muxu handi bat.



Nerea

Zorionak printzesa. Oso ondo pasa. Txokomarrubizko 6 muxu potolo.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 19

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 20

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 21

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astearte, 22

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 23

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 24

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Ostirala, 25

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Larunbata, 26

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 27

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, Egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Astelehena, 28

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astearte, 29

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Asteazkena, 30

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Osteguna, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Ostirala, 2

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 3

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Igandea, 4

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astelehena, 5

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astearte, 6

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 7

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Osteguna, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Apartamentu bat alokatzen dut ekainetik aurrera Cala de Finestrat herrian. 2 logela, egongela, bi komun eta sukaldea ditu. Urbanizazioak igerilekua eta paddel pista ditu eta hondartza 150 metrotaratu. Tel.: 667 731 456.

• Garajeko marra bat alokatzen da Hipodromo etorbidea 6ko azpian. I.I.I. Marra da, auto baten-tzako. Interesatuak deitu telefono zenbaki hauetara: 943 36 14 50 edo 687 851 713, Bixente.

Salerosketak

• Garage bat alokatzen da Libertoko eraikinean, interesatutak deitu 667 812940 telefonora

• 50 cc. Suzuki motorra salgai dago 250 eurotan. Motorrean ibiltzeko negurako funda 90 eurotan eta Pro Form kirol makina eliptikoa 350 eurotan. Interesatuta dagoena 606391998 telefono zenbakira deitzea du eta Olatzen-gatik galdetu.

• Landaberri ikastolan Igo DBH-rako erabiltzen diren liburak saltzen dira. Bigarren eskukoak dira eta bere erdi-prezioan saltzen dira. Harremanetarako zenbakia, 667 731 346.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

• Motorra duen aulki gurpilduna salgai. Oso gutxi erabilia. Tel.: 687659261

Lan-eskaintzak

• Etxerako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo moduan lan eginez. 676188411

• Etxeko lanetarako langilea eskaintzen da. Extremo moduan lan eginez, eta orduka. 630438571

• Mutil batek lana bilatzen du jende nagusia zaintzen. Externo edo interno moduan. 676188411

Lan-eskariak

• Lasarteko neska gaztea eskaintzen da abuztuan lana egiteko, umeak zaintzen. Harremanetarako zenbakia, 677 823 141.

• Etxeko lanak, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko nituzke, bi egunetik bat. Harremanetarako zenbakia, 647 614 537.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Berarekin kontaktuan jartzeko 657791506 telefono zenbakira deitu behar da.

Jaiotzak

Mikel Arratibel Aramburu, ekainaren 3an.

Heriotzak

M^a Carmen Gomez Basurco, ekainaren 16an 70 urte zituela.
Victor Alvaro Mediero, ekainaren 12an 71 urte zituela.

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

100 egun Alkatetzan

106 egun dira Jesus Zaballosek Lasarte-Oriako alkatetzan hartu zuenetik, horregatik, asteazkenean prentsaurrekoa egin zuen bere lehenengo 100 egunen laburpena egiteko.

"Hasieratik esan nuen herri-tarren alkatea izango nintzela, horregatik, sustatu ditutu herri-tarren parte hartzea eta haiekin bildu naiz nire bulegoan," adierazi zuen alkateak.

Alkateak azaldu zuenez, herri-tar ugari hurbildu dira haien kezka eta arazoak jakin arazteko.

Bestalde, "auzo elkarteekin bildu eta auzoak ikusten egon naiz. Gainera, autobusaren gaia dela eta, bilera ugari egin ditugu. Beste elkarteekin, laguntzen araudiaren nondik norakoak argitu ditugu eta obretako enpresekin lanei buruz hitz egin dugu," aipatu zuen.

Partehartzearekin jarraituz, Plazaolako parkearen egitas-moa aipatu zuen.

Hori zuzeneko harremanari dagokionez, baina martxan jarri diren iradokizun orriak ere eka-ri ditu gogora, "164 idatzi izan ditugu, eta haiei konponbidea bilatzen saiatzen gara, aukera hori badago."

Eta horren harira, txakurren araudia herri-tarren kexen ondorioz jarri zela azpimarratu du. Era berean, gizatasun araudi bat egiten ari direla ere aurreratu du.

Etxebizitza eta enplegua

Etxebizitza dagokionez, Etxebizitzaren Erregistroa ireki da eta Goiegiko Ibarroko zozketako baldintza-orriak onartu dira ehun egun hauetan.



Orain zozketako antolakuntza guztia egiten ari dira eta irailerako egin nahi dutela aurreratu zuen.

Honetaz gain, Etxebideko zuzendaria hitz egin du alkateak eta Goiegiko BOEak %100 lasarteoriatarrentzat izateko akordioa iritsi direla jakin arazi zuen.

Enplegu mailan, gardenak izan nahi duela azpimarratu zuen. Horrela, nahiz eta konpetentzia gutxi izan, Udaleko obretako baldintza-orrietan herri-tarrak kontratatzeko baldintza jarri du. Eta Gizarte zerbitzuekin batera, Enplegu sustapen ekimena dago, 14 lanpostu direnak.

Gizarte Zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuei dagokionez, alkate izendatu zutenean egoera latza aurkitu zuela onartu zuen, baina honi aurre egin diote, kontratazioaren bidez, eta zegoen zerrenda murriztu da.

"Langile gehiago kontratatu nahi ditugu, egoera krisi honetan, baina Jaurlaritzaren 7000

planaren zain gaude," esan zuen.

Horretaz gain, esperientzia pilotoa jarri da martxan, Lanbiderekin batera, *Errenta aktiboa*. Honi esker, errenta laguntzak Lanbidetik bideratuko dira eta horrek lan karga kenduko gizar-te zerbitzuei.

Udaleko barne funtzionamenduan hitzarmena adostu du langileekin eta udaltzainekin akordioa lortzeko bidean dago.

Era berean, 2010eko aurrekontua itxi nahi duela aurreratu zuen, "irailerako izango da".

Eta honetaz gain, martxan dauden lanen zerrenda egin zuen alkateak, baita San Pedro-etako jaien egun aldaketa aipatu, Eskola kontseilua sortu dela eta industria guneak egin eta lana sortzeko, SPRI-LUR eta Buruntzaldeko industrialdearekin bilerak egin dituela jakin arazi zuen alkateak.

Alkatearen ustez, beraz, kudeaketa ona egin du Gobernu lan taldeak, "herri-tarrek hori jakin arazi digute eta horrela jarraituko dugu lanean." •



ISTRIPUA

Atsobakarreko irteera itxi zen istripuagatik

Asteazkeneko euri-jasak zirela eta, kamio bat N-1 errepide-tik erori, karga galdu eta Atsobakarreko tunela itxi zuen. Kamioil-aria ospitalera eraman zuten.

LANAK

Loidi-Barreneko frontoia itxi dute

Loidi-Barreneko frontoia eta padelaren bigarren faseko lanak direla eta, frontoia astelehenean, ekainaren 14an, itxi zuten.

Tokiko Enplegu eta Egonkortasunerako Estatuko Funtsaren baitan dauden lan hauen exekuzio epea 3 hilabetekoa izango da.

Alkatetzak barkamena eskatzen du lan hauek eragin ditzake-ten eragozpenengatik. •

MUSIKA

Alboka, Alboka-txiki eta Txepetxa abesbatzen kontzertua igandean

San Pedro-etako jaiak hurbiltzen doaz, horren seinale Alboka, Alboka-txiki eta Txepetxa abesbatzek igandean 12:30ean Ama Brigitarren komentuan eskainiko duten kontzertua da.

Igandeko egitarauan folklorea izango da nagusi, bai euskal doinuak, baita atzerrikoak ere. Alboka-Txiki eta Txepetxak Joseba Tapiaren *Maitatzen zaitudalako* edo David Azurzak mol-datutako *Gaztelugatxe* eta Japoniako, Eskoziako edo Zelanda Berriko abesti herrikoiak abestuko dituzte haurrek.

Helduen abesbatzaren eskutik, Arambururen *Kitolis* edo *Porrasalda* euskal doinuak, galegoz R. Mato egilearen *Lela* eta atzerriko hainbat abesti, *Rosas Pandan* Filipinako doinua edo H. Villa-Lobos egile brasildarraren *Balao meu bem* eta *Olha a rosa amarela* entzungo dira brigitarren komentuan.

Hala ere, abesti erlijiosoez ere bere lekua izango dute. Biel-en *Ave Maria*, *Grieg-en Ave Maris Stella* edo Molfinoren *O Sacrum Convivium* ere eskainiko baitu helduen abesbatzak egitarauaren barruan. •

Pasaia abesbatzak Beltza ipuin musikala eskainiko du

Haurrek gaur gozatzeko aukera dute gaur arratsaldean, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean eskainiko den ekitaldiarekin.

Pasaia abesbatzeko haurren taldearen eskutik, doinu herrikoiak ezagutu eta ipuin musikala entzungo dute areto-ara hurbiltzen diren herri-tarrek.

Izan ere, emanaldi honek bi zati izango baititu, batean herri ezberdinetako folklorea eskainiko dute eta bestean, Josu Elberdin egile pasaitarraren eta Pasaia abesbatzako talde tekniko kide den *Beltza* ipuin musikala taularatuko dute.

Folklorea

Honela, aipatu bezala, Josu Elberdin, Miren Jone Taibo eta

Saioa Ruiz-ek zuzenduta Pasaia abesbatzak euskal abestiak eta atzerriko hainbat doinu herrikoia eskainiko dituzte: Besteak beste Aita Semeak, Iruiten ari Nuzu, Xar-mengarria, Axuri beltza, Kalinka edo Kapitain, kapitain piezak eskainiko dituzte.

Beltza

Bestalde, musika eta ahotsaren bidez, *Beltza* izarraren istorioaren berri emango dute Pasaia abesbatzako umekak kontzertuko bigarren zatian.

Beltza argirik ez duen izarra da. Inork ez du ikusten eta horregatik, oso triste dago. Milaka abentura biziko ditu bere lekua utzi eta lurrera joa-tea erabakitzen duenean. •

Euskal Astearen ospakizunak gaur hasiko dira Sasoeta-Zumaburu ikastetxean

Ez diogu beldur euskarari, euskarak ez gaitu izutzen. Beldurra euskarari? Izan zaitez euskararen mintzalarai. Hori da Sasoeta Zumaburu ikastetxe-ko aurtengo Euskal Festa-ren lema.

Gaurtik asteazkenera arte, Sasoetako eraikuntzan taile-rrak, astea girotzeko musika, irteerak eta jaialdia izango dute ikasleek.

Jaialdia

Jokoak, euskararekiko dituzten sentimenduak lantzeko taile-rrak, dantza eta perkusio afrikarra, Hipo eta Tomax pai-lazioen *Beldurraren etxean* ikuskizuna, dantzak, taloak... hamaika ekitaldi prestatu dira bihar egingo den jaialdirako.



Jokoak, taile-rrak, taloak... gaztetxoek denetarik egingo dute aste honetan.

Astelehenean, berriz, irteera izango dute Lasarte-Oriako inguru-eta. Adinaren arabera, Mini Golfera, Santa Barbara, Azkorterako edo Plazaola bidetik barrena egingo dute txangoa.

Asteartean, berriz, jolasak eta herri kirolak izango dira eta asteazkenean, ikasturteko azken egunean, San Juan Sua egingo dute ikastetxeko jolas-lekuan. •

Italia iparraldean egon dira lau egunetan San Markos mankomunitateko ordezkariak eta bertako udalierrietako zinegotzi batzuk, tartean, Txanpi Baztarrirako eta Ricardo Ortega Lasarte-Oriako zinegotziak, zabor-kudeaketan Pilamonte eta Lombardia eskualdeetan dituen

Italiatik atez atekoaren aldeko mezua

■ Lombardia eta Piemontetik bueltan, Txanpi Baztarrirako eta Ricardo Ortega udal zinegotziak atez ateko bilketa Gipuzkoan zabalitzearan alde azaldu dira ■ Erraustegiaren aurrean alternatiba dela uste dute ■ Interesgarri jozen dute norberak sortutako hondakin kopuruaren arabera ordaintzea

Txanpi Baztarrirako Ezker Abertzaleko zinegotzia

“Konbentzitututa gaudenak elxean autokompostajeara egiten hasi gaituzen”

Ion ALZOLA

Txanpi Baztarrirako ezker abertzaleko zinegotzietan uste da, oso interesgarria da Lombardiaren ingunetan martxan diren proiektuak ezagutzera.

Italiako iparraldera egon diren bidaiaren inguruan onkor dakuzu? Ona, gauza batzuk bagenezkizkien eta beste gauza batzuk berriak izan dira.

Zer nabarmenduko zenuke gauza berri horietatik? Zer impresioatu zaituzte?

Gauza berrietan, lehenengo eta nahiko garrantzitsua bereak gaita legez arautua daukela da, lehenengo pausua emanda dute.

Eta bigarrena, bakulazko sortzen dituzten hondakin araberako oraindik ez dagoen erabileraren inguruan dute kutsu ondoz ondoz banandu da. Atez ateko bilketa berrak ere, atez ateko bilketa berrak ere, atez ateko bilketa berrak ere, atez ateko bilketa berrak ere...

Bilketa eta atez ateko sistemak, aldi, nik uste Usurbil, Hernani eta Oñatekoak dira. Baina prozesu oso ekonomikoak dira. Zentzu handi batean, garatutako daude, eta hori oso onuragarria da.

Hiru herri hauetatik zabalduko da beste okietara? Interesgarria izango al da hori? Bai, ikusi dugu behin baino gehiago teknikoak posible dela. Zein da arazoak? Erabaki

esperientzia ezagutuko. 1995ean hasi ziren hondakin atez ate jasotzen eta hainbat herri eta hiritarra zabaldu da proiektua. Bidaiaren ondoren, herriko bi zinegotziek atez ateko bilketa oso baliagarria dela aldarrikatu dute eta hain ikusitakoa hemen ezagutzen ez denez hartzeko deia.

Italiatik atez atekoaren aldeko mezua

■ Lombardia eta Piemontetik bueltan, Txanpi Baztarrirako eta Ricardo Ortega udal zinegotziak atez ateko bilketa Gipuzkoan zabalitzearan alde azaldu dira ■ Erraustegiaren aurrean alternatiba dela uste dute ■ Interesgarri jozen dute norberak sortutako hondakin kopuruaren arabera ordaintzea

Txanpi Baztarrirako Albariteko nekezari egindako bisita.



Txanpi Baztarrirako Albariteko nekezari egindako bisita.

“Bizitza honetan gauzak jendearen borondatearen esku utziz gero, tamalez, ez dute funtzionatzen.”

talde, geroa ere, kontsumoaren galari buruzko beste ikuspegi bat izango dute. Eskolak hezitzaile izan behar du zaborra gutxitzeko behar du.

Lasarte-Oriako, posible, ikusten al duzu atez-ateko sistema? Erabaki politikoa aldatzen bada bai, bestela ez.

Zaila al da ba jendea konbentzitzen? Ez, baina konbentzitzea ez, aldira dute. Inkestak batzuk badago Azitkerrek Lasarte-Oriako egina, datu oso onak emandakoa.

Denen den, herrian, beste prozesu bat egin beharko genduzke. Konbentzitututa gaudenak autokompostajeara egiten hasi eta hori zaborra, kompostajeara egiten duteneko hobaria izatea sortuko luke eta honek Udal Gobernuaren ezabatu jarri.

Pausu handi bat izango litzateke hobarenaren hurrengo urteko aurrekontu edota hasian sartzerik balago, baina zaila funtzionatzen. •



Ricardo Ortega, San Markos komunitateko presidentea.

Ricardo Ortega EBko zinegotzia / San Markoseko presidentea “Zalantzak dituenari errealitatea objektiboki aztertzeke minutu bat eskatuko niok”

Atez ateko Gipuzkoan zabalitzea, posible eta egokia ikusten duteak. Italiako ezagututako presidiak Italiara egindako bidaiaren burlean atez ateko bilketa garrantzitsua dela beste herri batzuetara zabaldu behar auzimarratu zituen.

Zer moduz Italiara bidaiatzen du? Ondoko atara da: errealitate ezardinak ezagutzea etorri gara eta aukera izan dugu denek irakurteko, planteamendu, bilketa eta kudeaketa ekonomiko edo kobraketa aldetik, jende oso interesgarriekin egon gara Italiara ERICA kooperatibarekin.

Lasarte-Oriako, posible, ikusten al duzu atez-ateko sistema? Erabaki politikoa aldatzen bada bai, bestela ez.

Zaila al da ba jendea konbentzitzen? Ez, baina konbentzitzea ez, aldira dute. Inkestak batzuk badago Azitkerrek Lasarte-Oriako egina, datu oso onak emandakoa.

Denen den, herrian, beste prozesu bat egin beharko genduzke. Konbentzitututa gaudenak autokompostajeara egiten hasi eta hori zaborra, kompostajeara egiten duteneko hobaria izatea sortuko luke eta honek Udal Gobernuaren ezabatu jarri.

Pausu handi bat izango litzateke hobarenaren hurrengo urteko aurrekontu edota hasian sartzerik balago, baina zaila funtzionatzen. •

SALA GALA ZATUOZ ZIKRE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERAI GORRIK HOBERENA LAGINARTE PAREGABEAN! Ostegunetan pop-rock kontzertuak Oñatekoan saba... Galarreta Iai-Aiai Frontoia Hernani 20170 Tel.: 943 333 116 www.sala-gala.com

Krisiaren aurkako 2010 Plana 100 milioi euro Enpresei laguntzea Gipuzkoan badugu Plana: Estuialdian ateratzeko, berregituratzeko eta proiektu lehiakorak sustatzeko neurriak bideratzea. GIPUZKOA

Kiroletako agenda

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 12

Mosso Memoriala
Final aurrekoak
Larunbata 19

11:00etan, ISU Leihoak-IOB H.K.
12:00etan, Epel-Izkiñá

ATLETISMOA

Larunbata 19

16:30ean, hainbat herritarrek Azeri-bila lasterketan parte hartuko dute, Hernanin.

TXIRRINDULARITZA

Ekainak 20

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Ondarroara egingo du irteera.
16:00etan, Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako jubenilek III Javier Ezenarro Oroitzarrean parte hartuko dute, Mendaron.

PALA

SANTA ANA PALA TXAPELKETA
Ekainak 21

19:00etan, Juan Luis Yeregi eta Martin Iparragirre-Josu Uzkudun eta Xabier Sedano
20:00etan, Xabier Otaegi eta Zigor Iriondo-Patxi Castro eta Migueltxo

Ekainak 22

19:00etan, Jon Pagola eta

Jesus Ferreira-Eneko Iradi eta Ibon Azkonobieta
20:00etan, Edu Jauregui eta Fran Ariztimuño - Alvaro Reyes eta Roberto Felipe

Ekainak 23

19:00etan, Javier Fraile eta Gabriel Martinez-Mundu eta Xenki
20:00etan, Goiko eta Azkona-Carlos Garcia eta Mikel Arroyo

Ekainak 24

19:00etan, Jon Lizaso eta Txema-Agustin Zubizarreta eta Xabier Eugi
20:00etan, Shanti eta Bernaitz-Xabier Garcia eta Imanol Muxika

IGERIKETA

Larunbata 19

10:30ean, Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gaztetxoek XXI. Lasarte Igeriketa Sarian parte hartuko dute, kiroldegian.

TENISA

LASARTE-ORIAKO TENIS TXAPELKETA
Michelingo Kirol Gunean

Ekainak 19

10:30ean, Eugenio Moreno-jose Mari Martinez
12:00etan, Santi Lorenzo-Claudio Bustamante
16:00etatik aurrera, beste sei partida.



ISU Leihoak goiera eskuan izan zuten Ibaizabalen aurkako partidari, baina azkeneko minutuetan galdu zuten. Arg.: J. Zatarain

ISU Leihoak taldeak ez zuten goiera lortu

Ibaizabal taldea garaitu ahal izan zuten, baina azkenean, 2 eta 3 galdu zuten bere atean sartuta

Azken bi asteburuetan, ISU Leihoak Euskal Ligara igotzeko aukerak izan ditu.

Gipuzkoako Ligako finala jokatu zuten, ekainaren 5ean, eta Gipuzkoako bigarren sailkatu bezala, goierako postua eskuratzeko, Euskadiko hiru ligetako bigarren sailkatuen txapelketan parte hartu zuten.

Bi partida asteburuan

Arestian aipatu bezala, ekainaren 5ean, Eskolapioen aurka Gipuzkoako ligako finala jokatu zuten Lasarte-Oriako taldeak.

ISUK ezin izan zuten talde tolosarraren aurka. Bi eta huts galdu zuten Oiartzunen jokatu zen partidari eta Gipuzkoako txapelketa orde izan zuten.

Bestalde, Arabako Izarra Gorri, Bizkaiko Ibaizabal eta

hirurek, hau da autonomia bakoitzeko bigarren txapelketa jokatu zuten.

Larunbatean, maiatzaren 29an, Izarra Gorri taldeak Ibaizabalen aurka galdu zuten 7 eta 4.

Ekainaren 6, igandean, ISUren aurka jokatu zuten talde arabarrak. Nahiz eta Molinaren taldeak aurreko egunean partida izan, partida berdindua izan zen.

Azkeneko minutuetan, erabaki zuten Lasarte-Oriako taldeak. Zazpinako berdinketa zegoen markagailuan eta kontraeraso batean ISU Leioha taldeak 8. gola sartu zuten.

Orduan, arabarrak behera egin zuten animikoki eta Molinaren taldeak beste bi gol sartu zituen eta azken markagailua 7 eta 10 izan zen.

Igoera esku artetik joan

Era honetara, ISU eta Ibaizabal taldeak berdinduak zeuden kopuruari zegokionez, beraz, larunbatean, ekainaren 12an, Lasarte-Orian irabazten zutenak goiera lortuko zuten.

ISU lehiakor hasi zen, baina Ibaizabal taldea aurreratu zen markagailuan.

Lasarte-Oriako taldeak ez zuten amore eman eta 13. minutuan berdinketa lortu zuten eta atsedendirako 2 minutu falta zirenean, markagailuan aurretik jarri zuten.

Atsedendia ostean, Ibaizabaleko bi jokalarikale-teratu zituzten eta, hala ere, berdinketa lortu zuten.

Amaitera arte berdinketak jarraituko zuela zirudien, baina ISUK ez zuten zortea lagun izan eta minutua falta zenean, bere atean sartu zuten gola. •

Kiroletako oharrak

Sporting-Kompac Txapelketa

Buruntz-Azpi elkarreak ekainaren 20an, igandean, Sporting-Kompac txapelketa soziala ospatuko du Arkaleko kanpan.

Parte hartu nahi duen orok elkartera jo beharko du izena emateko.

Udal Igerilekua itxia

Igeri txapelketa dela eta, Udal igerilekua datorren larunbatean ekainaren 19ean, 13:00 arte itxia egongo da erabiltzaileentzako.

Era berean, haurrentzako antolatutako den ureta festa dela eta, ostegunean, ekainaren 24ean, 09:00etatik 12:30etara igerilekua itxia egongo da, helduentzat.

Andoain, Usurbil edo Urnieta-ko udaletako instalakuntzak erabili daitezkeela gogoratzen du Kirol Zerbitzuak.

Jarduera berezia igerileku txikian

Ekainaren 20an, igandea, goizeko 10:00etik 11:00etara, Kiroldegiko igerileku txikia okupatuta

egongo da haurtxoekin egingo den igeri saio batengatik; igerileku handia erabiltzaileentzat libre egongo da.

Instalazioen erabilpena

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu dute.

Horregatik, Kirol Zerbitzuak erabiltzaileeri ondoko hau gogora arazi nahi die, entrenamenduen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu libreak aurkitzeko aukerak askoz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Futbol eskolan izen emateko epea zabalik

Futbol-eskolako izena emateko epea zabalduko da ekainaren 14tik 25era.

Izena emateko Ostadarreko bulegotik pasa behar da arratsaldetan, 19:00etatik 20:00ak bitartean.



Hiru lasarteoriatarrek proba hasi baino lehen. Arg.: Joseba Iparragirre

Lasarteoriatarrek Lakunza-Aralar proban

Ostadarreko atletismo saileko Jose Ignacio Elvira, Joseba Iparragirre eta Jokin Ollokiegik Lakunza-Aralar mendi lasterketan parte hartu zuten lehengo igandean, ekainaren 13an. Ibilbideak, 28 km eta 500 metro, Aralarko parke naturala zeharkatzen zuten eta korrikalariak aipatu digutenez behe lainoa zegoen eta ez zen ezer ikusten. Lasarteoriatarren artean azkarrena, Julen Ollokiegi izan zen. •

Egunero

Erakusketa

MUNDU BAT, MILAKA AURPEGI, Aitzol Etxegoien lasarteoriatarren argazki erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.



Ostirala, 18

Ipuin-kontalaria

Belta izarraren istorioaren berri emango dute Pasaia abesbatzako umeek kontzertuko bigarren zatian. Osotasunean IPUIN MUSIKALA eskainiko dute. Manuel Lekuona Kulturetxean, 20:00etan.



Igandea, 20

Kontzertua

ALBOKA, ALBOKA TXIKI ETA TXEPETXA abesbatzek emanaldia eskainiko dute Ama Brigitarren komentuan, 12:30ean San Pedro jaien egitarauaren barruan. Eskainiko duten kontzertuan folklorea izango da nagusi, bai euskal doinuak, baita atzerrikoak ere



Lasarte-Oriako etxe zaharren maketak ikusgai

LASARTE-ORIAKO ETXE ZAHARREN MAKETEN ERAKUSKETA jarri du ikusgai Patxi Altuna Iruretagoiena lasarteoriatzarrak. Hilaren bukaera arte ikusgai egongo den erakusketa honetan herriko hainbat eraikin ikusi daitezke, jadanik botata duden zenbait etxe ikusi daitezke..

EKAINAREN 17TIK AURRERA
KULTURETXEAN
18:00ETATIK 21:00ETARA

Festa

HERNANIKO KRONIKAREN X. URTERURRENA dela eta festa antolatuta dute. Goizeko 9:00etan bizpahiru orduko ibilaldia Hernanitik barrena. Goizeko 11:00etatik aurrera Tilosetan pilota partida eta umeentzako tailerrak; arratsaldean 17:00etan tailerrak (txapa tailerra, aurpegia margotzeko tailerra...) eta 18:30etik aurrera estilo dife-
rentetako musika.

Asteazkena, 23

Dantza

SAN JOAN ZORTZIKOA dantzatuko da Udaletxe parean. Ondoren, Udaltzate, Erketz EDTko dantzariak lagun dituela, Andatza plazarantz abiatuko da, eta, han, SOKA-DANTZA tradizionala dantzatuko dute. 22:00etan. SAN JOAN SUA piztuko dute plazan bertan.



Ostirala, 25

Dantza

ERKETZ DANTZA TALDEAREN emanaldia San Pedro Jaien egitarauaren barruan. Kulturetxean, 22:00etan.



Kontzertua

OREINDIK (Funk, rock) eta LAUROBA (Pop rock) taldeen emanaldia. Jalgin, 23:00etan.



Oharrak

Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egin-
go dituzte Osasun Zentroan ekainaren 21ean, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

Zikero afariko txartelak

Aurten ere San Pedro jaietako lehenengo egunerako zikero afaria antolatu du Ttakunek. Afaria Sorgin Jaien gunean izango da iluntzeko 21:00etan. Txartelak gaur bertan, ostirala, jarriko dira salgai Ttakunen eta Jalgin 20 euroren truke.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herritarrei jakinarazten die gauza hauek daukatela jasota: diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, belarritako belta eta doratua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko aliantza, Jose Luis grabaketarekin eta bi baloi.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte, Udaltzainen Bulegoan 09:00etatik 13:00etara.

Sorgin Dantzaren entseguak

Urtero bezala, Ttakunek San Pedro jaietan antolatzen duen Sorgin Dantzan parte hartzerko entseguak antolatu dira. Astearte eta ostegunetan izango dira 20:00etan Landaberri Garaikoetxeako aterpean.

Gasolina merkeago Aterpeko txartelarekin

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkarteak karpaina berri jarri zuen martxan asteartean. Honetan, Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beherapena izango dute haien ordaintzetan.

Sorgin Jaietako materiala

Sorgin jaietako materiala salgai, asteartero, ostegunero larunbatero Okendo parean, Geltoki kalean. Zapiak dagoneko salgai daude.

Margo eta marrazki eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak jakinarazi nahi du, larunbatean, ekainaren 19an amaitzen direla eskolak.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info

Eskutitzak

Zubietako kaltetuek Markel Olanori gutun irekia

Gipuzkoako Aldun Nagusi zaren Markel Olano: gure buruak aurkezteko, Zubietan Gipuzkoako agintariak erakitzea erabaki duzuen errauste plantak erdiz-erdi kaltetutako jendeak gara. Zubietan bizi garenak. Horietako batzuk bildu gara gutun ireki hau zuri idazteko. Lehenago, orain dela aste batzuk, zurekin gauzotaz aurrez aurre hitz egiteko zita eskatu genizun, baina erantzun ere egin ez diguzenez, komunikabideen bitartez jakin beharko dugu zuri esateko daukaguna.

1.- Oraindik garaiz gaude Gipuzkoan hondakin kudeaketan atzerabueltarik gabeko urrats arriskutsuak ez emateko eta gaia era burutsuan

bideratzeko.

2.- Gero eta herritar gehiagok ikusten du hondakinak labe erraldoietan erraustea soluzio txarra dela, kutsakorra, gizakien eta oro har naturaren osasunarentzako pozoigarria, ingurumenarentzako kaltegarria eta dirutan oso garestia. Errauste planta justifikatzen dutenek ere aitortzen dute ahal balitz hobe litzatekeela hondakinak ez kitzkaltzea.

3.- Gipuzkoako hiru herritan erakutsi da hondakin kudeaketarako sistema hobea badela, Atez Ateko Bilketa ardatz duena. Mundu osoan milioika herritarrek dakite hori eta Euskal Herrian ere orain frogatu da. Errauste plantarik gabeko alternatiba badago, beraz garbia, antolatzen errezeta eta askoz merkeagoa.

4.- Atez Ateko Bilketa munduan ere, kultura eta

maila guztientzako herri eta hirietan egiten dute, agintean kolore politiko oso ezberdinetako politikariak -ezkerrekoak bezala eskubikoak-dauzkaten udaletan. Katalunian bezala Italian baditugu horren froga nabarmenak. Zu buruzagitzan zauzkan Eusko Alderdi Jeltzaleak hitz egin beharko luke atzerriko bazkide horiekin.

5.- Ezin duzu baimendu ez Foru Alderdiak, ez horretan agintea daukaten bi alderdietatik eta ez Gipuzkoako diru publiko hornitutako prentsari Atez Ateko Bilketa egiten duten udalak eta batez ere haietako herritarrek azken urte honetan ikusi den modu lotsagabearen matxakatea.

6.- Usurbilgo Ituna deitu den horretan hainbat alderdi politiko, sindikatu eta eragile sozialek sei urteko moratoria

proposatu du Zubietan eraiki nahi den errauste plantarentzako. Elkarrizketarako eta soluziorako bidea zabalik dago eta aukera hau ezin dugu alferrik galtzen utzi.

7.- Markel Olano jauna: erantzukizun handia daukagu gure Herriarekiko. Gaurko eta biharko herritarren osasuna, ongizatea eta baliabideak dauzkagu jokoan. Historiak denok epaituko gaitu, egin dugunagatik, egin ez dugunagatik eta egitea galarazi dugunagatik. Denon esku dago bide egokiak aukeratu eta okerreko bideak saihestea. Hondakinaren arazoa ondo bideratzeko aukera denon esku dago, eta Gipuzkoari dagokionez, asko zure esku, Olano jauna.

Zubietako 24 herritar

Hamaika Telebista iritsi da herrira

Euskara hutsezko telebista maiatzaz geroztik ikus daiteke Lasarte-Orian

TXINTXARRI

Euskalduna eta euskaltzalea, gure hizkuntzaren normalizazioaren prozesuarekin konpromiso estua harturik jaio zen Hamaika Telebista sortzeko egitasmoa. 2008ko azaroan izan genuen lehen aldiz euskal komunikabide honen berri, eta 2010an, azkenean, Lasarte-Orian ikuskerik izango dugu. Bilbon hasi ziren lehenengo emisioak, eta uda baino lehen Donostialdeko Hamaika Telebista izango dugu gure artean. Apirilaren 20an aurkeztu zuten, eta momentuz Hamaika Telebistan Bilboko albistea ematen badira ere, laster hasiko dira Gipuzkoari buruzkoak ere ematen.

Maiatzaren erdialdetik aurrera Hamaika Telebista ikusteko aukera dago Lasarte-Orian. Askok izango zenuten jada komunikabide honen berri, baina gutxi ikusia. Orain duzue aukera. Euskaltel bidez 911. katean eta LTD bidez 23 katean sintonizatzen aukera dago.

Ezagutu dezagun

Tokian tokiko telebisten nortasuna, gertutasuna baldin bada, honez gain, telebista honetan Euskal Herria izango da erreferentzia.

Guztiona eta guztiontzat egina, pentsaera ezberdinak islatuz, ideologia guztiak izango dute presentzia orain hiru aste herrian emititzen hasi zen Hamaika Telebistan.

Ez du inongo erakunde publiko edo alderdi politikoren ildo jarraituko, independentea izango da. Halaber, profesionala eta kalitatezkoa izateko ilusioarekin jaio zen, beti ere bere xumetasunean, kalitatea eskainiko duen telebista dela jakinda.



www.hamaikabilbo.tv web helbidean informazio gehiago eta programazioa aurkitu dezakezu. Zure telebista sintonizatzen argibideak ere aurkituko dituzu.

Telebista guztietan bezala atek zabal zabalik edukiko dituzte herritarrek, euren parte hartzea ezinbestekoa baita telebistetan.

Aurrerakoia izatea dute helburu: gizarte arloan jarrera aurrerakoia hartuko duen telebista bilakatu nahi dute. Beraz, gizarte pilpilean dauden gaietan sakonduko dute: gai konprometituak jorratuko dituzte, lan arlokoak, genero aferak, etorkinen arazoak, ekologikoak eta hizkuntza kontuak, besteak beste.

Indartsu izatea helburu

Hamaika telebistaren helburua, komunikabide parte-hartzaile, dinamiko eta herritarra

egitea da. Egun oso garrantzitsua da tokiko telebista euskaldun bat izatea, eta herritarren parte hartzearekin komunikabide indartsu bat egitea lortu nahi da. Maiatzetik aurrera, ETB1en aparte, euskara hutsean emititzen duen beste kate bat daukagu.

Tokian tokiko komunikabidea izanik, hurbileko informazioa izango du erakusle.

Akziodunen bila

Euskarazko komunikabide, elkarre... guztiak bezala, proiektu hauek aurrera atera ahal izateko euskararekiko sentsibilitatea dutenen artean, akziodun bila dabilza, Lasarte-Orian ere bai.

Gaur egun oso garrantzitsua da tokiko telebista euskaldun bat izatea, eta akziodunen bidez komunikabide indartsua lortu nahi da. Horregatik, Hamaika Telebistak egitasmo hau gizarteari eta beste enpresa batzuei ireki nahi die. Kapital handitze honetan, 600.000 eurotara heltzea dute helburu eta horretarako 200 eta 1000 euroko akzioak jarri dituzte salgai.

2 urtez lanean

Hamaika Telebistaren egitasmoa duela 2 urte sortu zen TDren lizentzien lehiaketarekin. Komunikazioari lotutako 6 enpresek apustu sendoa egin zuten euskarazko tokiko

telebisten alde. Euskaltel, Elkar, Baint TV, CMN TV (Deia, Diario de Noticias, Diario de Noticias de Álava eta Noticias de Gipuzkoa), EKHN (Gara eta Le Journal) eta EKT (Berria eta Hitza) dira Hamaika Telebista sustatu duten enpresak.

Euskal Autonomi Erkidegoan zehar zabalduko den 10 tokiko telebisten sare baten lehenengoa izango dugu proiektu hau. Sare honetan Hamaika Telebistak sortutako ez gain, gaur egun emititzen ari diren beste 5 telebistek ere parte hartuko dute. Goiena Telebista, Goierri Telebista, Erlo Telebista, 28 kanala eta Oizmendi Telebista. •



txintxarri

Argazkiak ateratzea gustuko duzu?
Txintxarrin argitaratu nahi al dituzu ?

Jarri gurekin harremanetan eta denon artean egingo dugu Txintxarri berezia!

Geltoki kalea 4 • 943 366858 • txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.info

SAN PEDRO
JAIK
2010